

RUEDA DE PRENSA:

V JORNADAS DE SOLIDARIDAD CON LAS VÍCTIMAS

Bakearen aldeko Koordinakundeak Biktimen aldeko Elkartasunerako V. Jardunaldiak ospatuko ditu azaroaren 15 eta 16an, 'Gizartearen victimenganako adiskidetzea' goiburupean.

Euskal errealitatea, hau da, gizarte demokratiko eta plurala setakeriaz aitortu nahi ez dutenek mehatxatu eta ilundurako une itxaropentsua bizi dugu. Indarkeriaren erabilerak ez du lekurik errealitate horretan, guztiz zentzugabea delako herritarren borondatea izuaren bidez makurraraztea; eta errealitate horretan era askotako sentsibiltate eta nortasun sentimendu desberdinak daude, mundu honetako beste leku askotan bezala, era normalizatu, adeitsu eta tolerantean bizikide izan gaitezkeela konbentzituta.

Bistakoa da une itxaropentsuak direna, baina baita zailak ere, egunez egun komunikabideetan ikus dezakegunez. Itxaropen hori sustatu behar dugu, atzera bueltarik egon ez dadin. Bake eta giza eskubideen errespetuaren aldeko gure hainbeste urtetako konpromisoa euskarri dugu etsipenean ez jausteko. Betidanik, geure egin dugu Gandhiren esaldia: *bide bakarra: indarkeriarik gabe*.

Kale istiluak eta mehatxuak ez dira desagertu; Batasuna eta bere ingurua isilik daude horren aurrean eta ez dirudi politikaren bide baketsuen erabileraren aldeko apustu sendorik egin nahi dutenik; ETak ez du irmoki berretsi izuaren erabilera bertan behera uzteko borondatea; askok, ez MLNV deritzan ingurukoek bakarrik, arazoaren soluzioa aukera politiko jakin bati lotu nahi dio, e.a..., Guzti hauek, azken batean, gainditu egin behar ditugun zailtasunen isla baino ez dira. Bakearen aldeko Koordinakundeko kideon ustez, edozein indarkeria motaren erabilera salatzen jarraitu behar dugu, are gehiago ETaren su-eten mugagabearen ostean, ustez behin betiko bakea lortzeko aukera zabaldu denean Euskal Herrian. Eta, era berean, guztiz beharrezkotzat jotzen dugu gero horren euskarriak jartzea: indarkeriari zilegitasun oro kendu eta gure historiaren oroimen kritikoa sortu, zein pisu izan duen, nolako mina ekarri duen eta eragin dituen biktimak kontuan hartu eta, horrela, gizartearen beraienganako konpromisoa berresteko.

INDARKERIARI ZILEGITASUNA KENDU ETA BIKTIMAK OROIMENERAKO BERRESKURATU

Terrorismoaren azkenaren hastapenetan gaudeneko itxaropenari eutsi nahi diogunez, nahitaez kotzat jotzen dugu etorkizunaren eraikuntzan ahalegintzea. Esan dugunez, bi dira etorkizun baketsu horri begira landu behar ditugun funtsezko gaiak: indarkeriari zilegitasuna kendu eta biktimak aitortu.

Bakea jadesteko gogo biziak ez gaitu etorkizuna edozein modutara eraikitzea eraman behar. Ez. Gure iritziz, funtsezkoa da indarkeriari zilegitasuna kentzea, terrorismoa arma politiko bezala erabiltzeari atea itxi behar diogulako, inork ez dezan atzera buelta egiteko eta indarraren bidez bere jarrerak inposatzeko tentaziorako aukerarik izan. Ondorioz, inoiz ezingo da pentsatu indarkeriak, gizarte osoan eta, batez ere, zuzenean jasan dutenen artean, egundoko samina sortzeko ezik, ezertarako balio izan duenik. Horregatik, agerikoa da demokraziak ezin diola inolako kontzesio politikorik egin terrorismoari. Sistema demokratikoaren funtsak berak galarazten du indarkeriaren erabilera ez legitimoaren aurrean amore ematea. Demokrazia bera traizionatzea litzateke hori, eta urte hauetan izuaren bidez beraiena inposatu nahi izan dutenen aurrean defendatu dugunari uko egitea.

Bakea biziki irrikatzen badugu ere, ezin gara dena ahaztu eta presaka orrialdez aldatzeko akats larrian jausi. Gaiztakeria litzateke, eta baita krudelkeria ere, batez ere biktimen aurka. Biktimak dira indarkeriari zilegitasuna kentzea eskatzeko arrazoirik nagusia, beraiek direlako terrorismoak guztioi zuzendu zigun eraso zuzenean jasan dutenak. Terrorismoak ez zuen pertsona bat bere giza kalitateagatik aukeratu, gu guztiontzat zuen adierazgarritasunagatik edo bere hilketak gizartean bertan eragin zezakeen kalteagatik baizik. Eraso denon aurkakoa izan zela onartzeak biktimak aitortzea dakar. Horregatik, gure erantzuna kolektiboa, gizarte osoarena, izango da. Biktimek gure aitortpena, begirunea eta elkartasuna merezi dute. Terrorismoa justifikatzea edo horren erabileraren aldeko aitzakiak bilatzea jasanezina litzateke edozeinentzat. Terrorismoa erabili eta justifikatu dutenek beren ardura dute eta beren gain hartu behar dute. Eta gizarteak, biktimei dagokienez urte luzetan isilik egon izana bere gain hartu behar du eta era kontsekuentean jokatu.

GIZARTEAREN BIKTIMENGANAKO ADISKIDETZEA

‘Adiskidetzea’ hitzak errezeloa eragiten du biktima batzuegan eta seguruenik garrantziko arrazoiak dituzte horretarako. Garai honetan, batzuen ustez, biktima eta biktimarioaren arteko jardura da adiskidetzea eta, gainera, biktimak prestutasunez, eskuzabaltasunez, barkamenez,... jokatu behar du. Eszenatoki horretan ez da ezer esaten biktimarioari buruz. Hau da, biktimak, terrorismoak eragindako konpondu ezineko kalteak jasateaz gainera, adiskidetzaren kontzeptu laudagarriarekin apaintzen den garrantzi handiko jardueraren arduradun zuzentzat hartzen dira.

Gure ustez, hori, adiskidetzaren eta berau jadesteko eman behar ditugun urratsen ikuspuntu ustela da. Eta, batez ere, ikuskera zuzengabea da biktimei dagokienez. Beste ezer baino lehen, beraienganako defizita aitortu behar dugu, gizarte osoaren aurkako erasoaren zoritxarreko jasotzaileak izan direla aitortu eta, aitortpen hori egin ondoren, ordain eta elkartasun ekintzak garatu. Biktimek ez dute era bateko edo besteko eginbehar kolektiboen arduradun izan behar, alderantziz, gizarteak bultzatutako elkartasun jardueren jasotzaileak izan behar dute; eta Erakundeak izango dira buru ekintza horietan. Biktimek biktimarioekin izan dezaketen jarrera pertsonala izango da beti eta kanpotik ezingo da sekula eskakizunik planteatu, eta are gutxiago, aitortpen eta elkartasunezko ezinbesteko bidea egin gabe.

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

Jardunaldiotako “Gizartearen biktimganako adiskidetzea” goiburuak egoera hau ezagutzera eman nahi du eta horren inguruan ohartarazi.

Aurtengo Jardunaldietan, indarkeriaren biktimei eta gizartearen kolektibo hau ulertzeko moduari buruzko lan ospetsuak kaleratu dituzten pertsonak izango dira gure artean. Hain zuzen ere, Javier Elzok –Deustuko Unibertsitateko irakaslea-, Xabier Etxebarriak –Deustuko Unibertsitateko Etika Gelako zuzendaria- eta Marta Amigok –psikologoa- gaiaren inguruko gogoetak eskainiko dizkigute azaroaren 15 eta 16an. Aurreko Jardunaldietako esperientziak eta biktimen aldeko urte luzetako lanak zera erakutsi digute: terrorismoaren erasoia bete-betean jasan dutenen bizipenak zuzenean ezagutzea irakaspen guztiz aberasgarria dela, eta entzute horretatik nahitaez sortzen direla enpatia eta elkartasuna. Bata zein bestea, ezinbestekoak dira gizarte gizatiarragoa, eta aukera gehiegitan alde batera utzi nahi izan den saminaren aurrean sentiberagoa, berreraikitzeke. Horregatik, bi egunez, biktimgek eta biktimen senideek ere esku hartuko dute Jardunaldietan, era askotako bizipenak eta urte hauetan bizi eta jasan dutenaren inguruko ikuspuntu desberdinak aurkeztuz.

Bakearen aldeko Koordinakundeak, biktimen aitorenaren eta gertatutakoaren oroimen kritikoa egitearen aldeko saiakeran eta, ondorioz, benetako etorkizun zuzen eta askea sortzeko ahaleginean iraunez ospatuko ditu ***Biktimgekiko Elkartasun Jardunaldi*** hauek. Honen haritik, saihestu dugun saminera hurbilduko gaituen bidea eskainiko diogu gizarteari, guk egin dezakegunaren inguruan hausnartzeko bidea, izuz eta beldurrez beteriko berrogei urteok, besterik gabe, indarkeriari zilegitasuna kendu gabe, atzean ez uzteko bidea. Dei egiten diegu herritar guztiei azaroaren 15 eta 16an, asteazken eta ostegunez, Bilboko Nervión Hotelera hurreratu daitezen, bertako ‘Nervión’ aretoan ospatuko dira-ta jardunaldi hauek 19,30etatik aurrera.

EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

11 de noviembre de 2006



Apdo. 10.152 - 48080 Bilbao – Tfno 94 4163929 - Fax 94 4153285

Apdo. 176 – 31080 Pamplona – Tfno. Fax: 948 223135

Apdo. 2.063 – 01080 Vitoria Gasteiz- Tfno. Fax: 945 226838

Apdo. 5.005 – 20080 Donostia – Tfno. Fax: 943 210906

e-mail: gesto@gesto.org <http://www.gesto.org>

Gesto por la Paz va a celebrar los próximos días **15 y 16 de noviembre**, las **V JORNADAS DE SOLIDARIDAD CON LAS VÍCTIMAS** con el título *Reconciliación de la sociedad hacia las víctimas*.

Nos encontramos en un momento de esperanza amenazado y ensombrecido por quienes obstinadamente se resisten a reconocer la realidad vasca: una sociedad democrática y plural donde no tiene cabida el uso de la violencia porque resulta absolutamente descabellado tratar de doblegar la voluntad de sus ciudadanos a través del terror; y en la que conviven múltiples sensibilidades y diferentes sentimientos de identidad, convencidos de que podemos coexistir de forma normalizada, respetuosa y tolerante como en muchos lugares de este mundo.

Es evidente que son momentos esperanzadores, pero también difíciles como lo podemos comprobar cada día en los medios de comunicación. Tenemos que alimentar esa esperanza para que la vuelta atrás resulte imposible. Nuestro compromiso con la paz y con el respeto a los derechos humanos durante tantos años nos sirve de soporte al que sujetarnos para no dejarnos llevar por el desánimo. Desde siempre hicimos nuestra la frase de Gandhi: *Solo una camino: sin violencia*.

Persiste la violencia callejera y las amenazas, acompañadas por el silencio del de Batasuna y su entorno que no parece que apuesten en exclusividad por las vías pacíficas de la política; ETA sigue sin confirmar su inequívoca voluntad de abandonar el uso del terror; muchas voces, no sólo del autodenominado MLNV, tratan de vincular la resolución del problema de la violencia a una opción política concreta; etc. son evidencias de las dificultades sobre las que hay que trabajar. En Gesto por la Paz consideramos necesario continuar denunciando el uso de cualquier tipo de violencia, máxime en un momento en el que supuestamente con el alto el fuego indefinido por parte de ETA se ha abierto la posibilidad de alcanzar una paz definitiva en Euskal Herria. Y también consideramos absolutamente necesario sentar las bases sobre las que se crearía ese futuro y que parten de la deslegitimación absoluta de la violencia y de la creación de una memoria crítica de nuestra historia que tenga muy presente lo que ha supuesto, el dolor generado y las víctimas ocasionadas y, así, reafirmar el compromiso de la sociedad hacia ellas.

DESLEGITIMAR LA VIOLENCIA Y RECUPERAR A LAS VÍCTIMAS PARA LA MEMORIA

Porque nos agarramos a la esperanza de que éste sea el inicio del fin del terrorismo, consideramos imprescindible trabajar en la construcción del futuro, que, como hemos dicho, se debe basar en dos cuestiones fundamentales: la deslegitimación de la violencia y el reconocimiento a las víctimas.

Nuestro anhelo de paz no puede conducirnos a construir de cualquier modo nuestro futuro. No. Creemos que es fundamental deslegitimar la violencia porque debemos

cerrar la puerta a la utilización del terrorismo como arma política, de tal forma que nadie vea la posibilidad de una vuelta atrás, ni pueda tener la tentación de volver a intentar imponerse mediante la fuerza. Esto implicará que nunca podrá percibirse que la violencia haya servido para algo, más allá de crear un inmenso dolor en toda la sociedad y, especialmente, entre quienes han sido afectados directamente. Por ello, es evidente que la democracia no puede hacer ningún tipo de concesión política al terrorismo. La propia esencia de un sistema democrático impide claudicar ante el uso ilegítimo de la violencia. Hacerlo sería traicionar a la propia democracia y renunciar a lo que hemos defendido durante todos estos años frente a quienes pretendían imponerse con el terror.

Nuestro anhelo de paz no debe hacernos caer en el grave error de pasar página apresuradamente, olvidando todo lo ocurrido. Sería una perversidad, además de una nueva crueldad, especialmente hacia las víctimas. Las víctimas son la primera razón para exigir la deslegitimación de la violencia, porque son la parte de la sociedad que ha sufrido directamente el ataque que el terrorismo nos dirigió a todos. El terrorismo no escogió a una persona concreta por su calidad humana, sino por lo que representaba para todos nosotros o por el daño que su asesinato pudiera causar en la propia sociedad. Asumir que el ataque fue dirigido contra todos significa reconocer a las víctimas. Por ello nuestra respuesta ha de ser colectiva, del conjunto de la sociedad. Las víctimas merecen nuestro reconocimiento, nuestra consideración y nuestra solidaridad. Nadie podría soportar la indignidad que supondría la justificación y la disculpa del terrorismo. Quienes lo han ejercido y lo han justificado tienen su responsabilidad y la tienen que asumir. Y el conjunto de la sociedad tendrá que asumir y actuar en consecuencia por el silencio que durante años ha mantenido respecto a las víctimas.

RECONCILIACIÓN DE LA SOCIEDAD HACIA LAS VÍCTIMAS

El término reconciliación provoca recelo en algunas víctimas y es probable que tengan importantes motivos para ello. En estos momentos hay voces que plantean la reconciliación como un acto entre la víctima y el victimario, en el que la primera debe tener una actitud de generosidad, de magnanimidad, de perdón... En este escenario nada se dice respecto al victimario. Es decir, a las víctimas además de haber sufrido las irreparables consecuencias del terrorismo se las colocaría ahora como responsables directas de una trascendental acción que se reviste con el siempre loable concepto de la reconciliación.

Creemos que éste es un enfoque erróneo de lo que entendemos por reconciliación y de los pasos que debemos dar hacia ella. Y es un enfoque, sobre todo, inmensamente injusto hacia las víctimas. Estamos en una situación en el que el primer paso es reconocer el déficit existente hacia ellas, reconocer que han sido las trágicas destinatarias de un ataque que iba dirigido contra toda la sociedad y, a partir de ese reconocimiento, desarrollar acciones de resarcimiento y de solidaridad. Las víctimas no deben ser responsables de realizar ninguna tarea colectiva, al contrario, deben ser las **destinatarias** de acciones de solidaridad por parte de toda la sociedad, acciones que deben ser lideradas por las Instituciones. La actitud de las víctimas hacia los

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

victimarios corresponderá siempre al ámbito personal y nunca, desde fuera, se podrá plantear ninguna exigencia en ese tema, y menos aún, sin haber recorrido antes ese necesario camino de reconocimiento y de solidaridad.

El título de estas Jornadas “Reconciliación de la sociedad *hacia* las víctimas” intenta poner de manifiesto esta situación y ser un paso en ese camino hacia el reconocimiento.

En estas Jornadas contaremos con la participación de personas cuyos trabajos sobre las víctimas de la violencia y la percepción social de ese colectivo han sido muy reconocidos. Concretamente, Javier Elzo –profesor de la Universidad de Deusto-, Xabier Etxebarria –Director del Aula de Ética de la Universidad de Deusto- y Margarita Amigo –psicóloga- nos ofrecerán durante los días 15 y 16 de noviembre sus reflexiones sobre el tema. La experiencia de Jornadas anteriores y de años de trabajo con las víctimas, nos ha enseñado que conocer de primera mano las vivencias de quienes más cerca han sufrido el ataque del terrorismo es una lección inmensamente rica de la cual surge inevitablemente la empatía y la solidaridad. Tanto una como la otra, son las piezas básicas que permitirán reconstruir una sociedad más humanizada y más permeable al dolor que se ha generado en su seno y que, en demasiadas ocasiones, ha tratado de obviar. Por esta razón, durante los dos días de las Jornadas, contaremos también con la participación de víctimas y familiares de víctimas con muy distintas vivencias y perspectivas de lo que han vivido y sufrido durante estos años.

Desde Gesto por la Paz en el empeño de reconocer a las víctimas y de elaborar una memoria crítica de lo ocurrido para crear un futuro justo y libre, volvemos a celebrar estas *Jornadas de Solidaridad con las Víctimas*. Con ellas ofrecemos a la sociedad un cauce que nos aproxime al dolor que no hemos querido ver, un cauce que nos haga reflexionar sobre qué podemos hacer, un cauce que nos impida pasar página a cuarenta años de terror sin tener presentes a quienes trataron de hacer callar para siempre. Invitamos a toda la ciudadanía a que se acerque los días miércoles 15 y jueves 16 de noviembre a las 19’30 h., al Hotel Nervión en Bilbao (en el Salón Nervión).

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
11 de noviembre de 2006



Apdo. 10.152 - 48080 Bilbao – Tfno 94 4163929 - Fax 94 4153285

Apdo. 176 – 31080 Pamplona – Tfno. Fax: 948 223135

Apdo. 2.063 – 01080 Vitoria Gasteiz- Tfno. Fax: 945 226838

Apdo. 5.005 – 20080 Donostia – Tfno. Fax: 943 210906

e-mail: gesto@gesto.org <http://www.gesto.org>